


EUSKAL AEKO 2014KO EKAINEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI)

Euskal AEko industria-jarduera % 0,1 handitu da 2014ko ekainean

Aurreko hilabetearekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioaren indizea % 0,2 handitu da

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa % 0,1 hazi da 2014ko ekainean, 2013ko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneotan, Eustaten datuen arabera. Aurreko hilabetearekin alderatuta, hau da, 2014ko maiatzarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa % 0,2 hazi da, urtaroko eraginak zuzenduta.



Industria-talde handiei dagokienez, 2014ko ekaineko indizeak 2013ko ekainarekin alderatuz izan duen bilakaera gorabeheratsua izan da. Kontsumo-ondasunak % 4,6 murriztu ziren, kontsumo-ondasun iraunkorrek % 20,3ko beherakada izan baitzuten eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek % 1,9 ugaritu baitziren. Taldeko ondasunak % 2,0 murriztu ziren, bitarteko ondasunak % 1,2 handitu ziren, eta energia, berriz, % 3,6ra igo da.

Hilabete arteko aldakuntza ere, 2014ko ekainekoa maiatzaren gainean, gorabeheratsua izan da, industria-talde handietan. Energia % 1,0 handitu zen eta taldeko ondasunak, berriz, % 1,3. Kontsumo-ondasunek, oro har, % 3,9ko jaitsiera

izan dute, kontsumo iraunkorreko ondasunek % 2,3ko jaitsiera eta kontsumo ez-iraunkorreko ondasunek % 4,4koa izatearen ondorioz. Bestalde, bitarteko ondasunak % 0,8 murriztu ziren.

Euskadiko industrian garrantzi handiena daukaten sektoreen artean, 2014ko ekainean hazkunde handiena izan dutenak hauek izan dira: Zura, papera eta arte grafikoak (% 12,0) eta Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 1,1).

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko aldakuntza-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	0,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	1,1
09 - Kautxua eta plastikoak	-1,7
13 - Makineria eta tresneria	-0,3
14 - Garraio-materiala	-8,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,6
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-9,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	12,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Kontrako muturrean, jaitsierarik handiena Material eta ekipo elektrikoa atalak izan zuen (% 9,8), eta ondoren Garraiorako materialak (% 8,9).

Lurralde historikoen arabera, industria-produkzioaren indizearen ekaineko urtez urteko bilakaera positiboa da Bizkaian (% 3,3) eta Gipuzkoan (% 0,5). Baina Araban murriztu egin da (% 6,0). Hilabete arteko aldakuntzaren tasari dagokionez, 2014ko maiatzarekin alderatuz, Gipuzkoan positiboa izan da (% 2,8), baina negatiboa Araban (% 2,7) eta Bizkaian (% 0,9).

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Aldakuntza-tasak. 2014 ekaina. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Eka2014/Eka2013	M(Eka2014)/M(Eka2013)*	Eka2014/Mai2014	Mai2014/Apr2014
Indize orokorra				
Euskal AE	0,1	0,4	0,2	-0,1
Araba/Álava	-6,0	1,1	-2,7	-2,7
Bizkaia	3,3	-0,6	-0,9	2,7
Gipuzkoa	0,5	1,1	2,8	-1,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-4,6	-3,4	-3,9	2,8
-Kontsumo-ondasun iraunkorra	-20,3	-19,0	-2,3	-3,3
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorra	1,9	3,3	-4,4	4,9
Ekipo-ondasunak	-2,0	-0,1	1,3	-3,2
Bitarteko ondasunak	1,2	2,9	-0,8	0,2
Energia	3,6	-3,6	1,0	1,8

(*) 2014ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2013ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago lortzeko:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 017 562

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua